



EAEk Voith-eko proiektua inpugnatu du, Aldundiko txosten batean oinarrituta

TOLOSA ▶ Udalak proiektua erabat
legezkoa dela eta aurrera
eramango dela baieztatu du

KRITIKA ▶ Hiru puntu ezbaian jarri
dituzte: erabilera intentsitatea,
ekipamenduak eta finantzaketa ▶ 3

JEXUX MARI IRAZU ▶
BERTSOLARIA

«Bertsoak
plaza-
kutsuarekin
botako ditut»

Larrauldarrak gaur
du saioa Gipuzkoako
Txapelketan ▶ 5

UNAI MUÑOZA ▶
BERTSOLARIA

«Zerbait
aldatzen da
nigan saioan
pentsatzean»

Bihar ariko da
Berrobikoa Azkoitian,
final-laurdenetan ▶ 5

IBARRA ▶

EALekoek
«atxilotuak
askatzea»
exijitu dute

Atxilotuetariko bi
taldeko kideak dira ▶ 6



JONE OTXOA-AIZPURUA ▶ BAKARLARIA

«Gogoia, ilusioa eta
ahalegin handia jarri
dut disko honetan»

‘Kateak’ bere bigarren lana aurkeztu
berri du abeslari anoetarrak ▶ 2

LEITZA ▶

Etxebizitza beharrak
zehazteko azterketa
jarri dute martxan

Udalaren ekimena izan da ▶ 7



“Natura
bezain
eraginkorra”

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PEUGEOT 308
berria



TOLOSA ▶

Harizpek 20. urteurrena ospatuko du 22tik aurrera

E. EZEIZA

Harizpe jubilatu eta pentsiodunen elkarte bere 20. urteurrena ospatzen ari da. Hori dela eta, zenbait ekitaldi prestatu ditu datorren aste-
ra, hau da, hilaren 22tik 28ra bitarteko.

Hilaren 22an, Apikultura ea apiterapiaren inguruko hitzaldia izango da. Hurrengo egunean, Gernika eta Bermeora txangoa egingo dute. Asteazkenean, hau da, hilaren 24an, txokolatada izango da Harizpeko aretoan. Ostegunean, Jose Loberori omenaldia egingo diote. Asteburuaren atarian, hau da, ostiralean, mus azkarreko txapelketa jokatu da, zortzi erregetara. Larunbatean, bingo berezia izango da, eta igande goizean, amaitzeko, ibilalditxo.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

JONE OTXOA-AIZPURUA ▶ BAKARLARIA

«Ahalegin handia, gogoia eta ilusioa jarri ditut lan honetan»

Jone bakarlariak bere bigarren lana, 'Kateak' izenekoa, aurkeztu zuen atzo; aurkezpen biraren baitan, Tolosan, azaroaren 10ean joko du

ESTI EZEIZA

21 urterekin bere bakarkako bigarren diskoa atera du Jone abeslariak (Anoeta, 1986). Lehendabizikoa 2005ean argitaratu zuen, sei kantuz osatua eta harrera ona izan zuena. Orain, lan berezi horri jarraipena emango dio *Kateak* izeneko bere azken diskoak.

Gustura geratu al zara emaitzarekin?

Bai, oso gustura, orain esku artean izateko desiatzen. Entzun eta ikusi dudun emaitzarekin oso kontentu nago.

Aurreko diskoa bezala, hau ere, Bonberenearekin grabatu duzu. Nola joan da grabaketa prozesua?

Bonbereneako estudioetan egin dut. Oraingoan ere, teknikari lanetan Karlos Osinaga Txap aritu da eta grabazio erosoan izan da. Alboan, luxuzko musikariak izan ditut, beraz, hartu-eman horretan oso gustura sentitu naiz. Grabaketak apirilean, Aste Santu aldera hasi genituen, baina zatikatuta egin dugu. Azkenean luzatu egin zen, baina aldi berean kantuak barneratzeko eta prozesua aztertzeke denbora gehiago ere izan dut.

Aurreko diskoak baino kantu gehiago ditu honek, honez gain, zein aldaketa nabarmenduko zenituzke?

Alde batetik, zuk aipatu bezala, aurreko disko laburra zen, sei kantu besterik ez zituen, eta honek berriz, hamaika. Honek lan gehiago ere suposatzen du. Bestalde, kantu bat izan ezik, gainontzeokoa nik neuk egin ditut aurrekoan bezala. Beraz, nik uste esentzia antzeko izan-
do dela. Dena den, denborarekin norberak gauzak ikasten ditut eta hauek gauzatzen joaten da. Gainera, kantu gehiago egotean, honek aniztasunerako aukera gehiago ere ematen dizu eta denetik aurki daiteke. Esaterako, akustiko batzuk ere badaude.

Zein galren inguruan mintzatzeko zara zure kantuetan?

Kantuak egiterako garaian, mementuan burura etortzen zaidanaren inguruan idazten dut, ez dut gai zehatz bat aukeratzeko. Une horretan ikusten edo sentitzen nuenaren inguruko hitzak idazten nituen. Adi-



ESTI EZEIZA

bidez, hiriaz, maitasunaz eta gizarteaz hitz egiten dut nire abestietan.

Zuk zeuk idazten eta konposatzeko dituzue abestiak, zein da prozesua?

Aurreko urte gutzia aritu naiz horretan. Normalean, lehendabiziki musika sortzen dut eta ondoren, horri letra jartzen diot. Errazago egiten zait modu horretan eta horrela irtetzen zaizkit. Agian, disko honetan egongo da alderantziz egindako kanturen bat, baina gutxi. Melodia bat sortzen dut, eta pixkanaka, poliki-poliki letra jartzen joaten naiz, kantuak bere itxura hartu arte.

Kateak izenburuarekin bat-talatu duzu zure bigarren lana, zer da kate hauek adierazten dutena?

Batetik, nire ustez, *kateak* hitzak berak badu indarra eta esanahia. Bestalde, zertan eraginik ez badu ere, diskoan badago *kateak* izeneko kantu bat.

Azken batean, kateak, loturak, harremanak... Guztia erlazionatuta dago, eta diskoak kantuak berak beraien artean kate bat izan daitezke. Hala, metafora hau kontuan hartuz, eta hitzak berak duen indarra aprobetxatuz, izen hau jartzea erabaki dut.

Kolaboraziorik sartu al duzu lan honetan?

Kantuetako bat Juanjo Lasagarek idatzitako poema bat da. Berari eskatu genion egiteko, eta *Atertu* du izen. Abesti hori berari, bestalde Imanol Ubedak jarri dio doinua, nahiz eta nik abestu. Honez gain, Karlos Aranzegi izan da baterian eta bi kantutan edo, Deabruak Teiltuetan taldeko Iñigo Arruti ere aritu da. Joni Ubeda baxuan eta Imanol Goikoetxea, gitarra elektriko, akustiko eta koruetan.

Aurkezpen bira azaroan hasiko duzu.

Bai, jada ilusio eta gogoz nago.

Lehendabizi, azaroaren 9an Nafarroan, Lakuntzan joko dugu, eta 10ean, hau da, hurrengo egunean, Bonberenean. Hau berezia izango da, ia etxean jotzea bezala baita. Eta hilabete horretan bertan, 16an Elgetan. Horiek dira ziur dakizkidanak, hortik aurrera, pixkanaka ateratzen ari dira. Zuzeneko horietan laukote moduan ibiliko gara. Tolosako bi lagun ibiliko dira nirekin: Iñaki Larrea baterian eta Beñat Let baxuan. Hauxe gain, Imanol Goikoetxea ariko da gitarran.

Zein osagai ditu disko honek, jendeari gustatzeko?

Hori norberak ikusi behar du. Hala ere, nik lan honetan sinestenuen. Horregatik, ahalegin handia, gogoia eta ilusioa jarri dut. Hiru osagai hauek behintzat jarri ditut lan hau egiteko garaian. Beraz, ni emaitzarekin gustura nago, eta pentsatzen dut, hori horrela bada, gainontzekoei ere gustatu ahal zaiela.

HIRIGINTZA ▶

EAEk Voith-eko proiektua inpugnatu du Foru Aldundiko txosten batean oinarrituta

Jokin Azkue Hirigintza zinegotziak Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzaren proiektua «erabat legezkoa» dela eta ez dela geldituko nabarmendu du



Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzaren proiektuaren arabera, itxura hau izango du etorkizunean. HITZA

ESTI EZEIZA

ANV-EAEn lau hautetsiek Voith-Gorostidi eremurako Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako etxebizitza egitasmoari helegitea jartzea erabaki dute. Hone-tarako Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari baten txostenean oinarritu dira. Bertan azaltzen da, proiektuaren inguruko hainbat puntu bideraezikiak direla eta ez dela egokia. ANV-EAEkoek galdetzen dutena da «ea zergatik txosten teknikoek esaten badute hau astakeria dela, politikariak zertan oinarritu dira hori aurrera eramateko?». Horregatik, ezker abertzalearen ustetan, beste interes batzuk defendatzen ari dira. Inpugnazioarekin, ezker abertzalekoek eskatzen dutena da lanak geldiaraztea, «agian ez proiektu osoarena, baina bai fase zehatz batena».

Jokin Azkue, Hirigintza zinegotziaren esanetan, «gune baten aldaketa, hau da, aldaketa partziala onartzen denean, horren behin betiko onarpena Gipuzkoako Foru Aldundiak egin behar du. Hala, honen behin betiko onarpena egin baino lehen, Aldundik hainbat txosten aztertzen ditu, eta horietako bat izango da ziurrenik, ANVk aurkeztu duena». Baiez-

tatu zuen ere, «zalantzarik ez dago, proiektuan ezlegezko-tasunik baldin badago Gipuzkoako Foru Aldundiak ez lukeela behin betiko onartuko. Gainera, behin betiko onarpena eman zenean zenbait zuzenketak eginarazi zizkiguten, eta egin ditugu». Dena den, EAE-ANVk helegitea aurkeztu badu ere, prozesuak aurrera jarraituko duela eta ez dutela etengo garbi utzi du Jokin Azkuek. Bere esanetan, «tolosarrek etxebizitza premiak dituzte eta guk ia 500 etxebizitza babestu egingo ditugu. Hala, gure helburua da ahalik eta azkarren eraikitzea, betiere, legearen barruan».

Proiektuaren aurkako helegiteak jartzea herritar orok duen eskubidea dela azaldu zuen atzo Azkuek, eta hau ona dela, baina horrek ez duela inongo eraginik. Bestalde azaldu zuen bere mementuan Foru Aldundiak erabakiko duela errekurso horren aurrean zer egin. Eta epaitegietara jotzen bada, horrek bere bidea egingo duela agertu zuen, baina berretsiz, ez dagoela ezer proiektu hau geldiaraziko duenik.

Proiektua erakusketa publikoan egin zen bitartean EAE-ANVkoek alegazioak aurkeztu zituzten. Bestalde, behin eta

berriz salatu zuten «proiektu horren atzean zegoen operazio urbanistikoa». Izan ere, beraien ustetan, «eremuaren antolaketan urbanistikoa eraikitzea enpresa baten mesedetan gauzatu izan da, etxebizitza beharren gainetik, enpresa honen interes ekonomikoa eta mesedezko tratatuak eman zizkiolako». Lekuko gisa aurkeztu dituzte, Tolosako Udaleko hirigintza zerbitzuaren kontrako informea eta Foru Aldundiko zerbitzu tekniko eta juridikoaren informea, non «garbi uzten duten Voith-Gorostidi eremuan egin nahi dena, erabat ilegala eta herri interesen kontrako garaian».

Foru Aldundiko Teknikoek proiektuaren azterketak egiten dituzte, informatu, baina berariake ez dute erabakitzen hau atzera botatzea edo onartzea. Honek ez du horretarako esku-menik. Erabakia hartzen duena kargu publikoa da. Dena den, teknikoen txostenak baliagarriak dira erabakiak hartzeko garaian.

EAE-ANVren esanetan «erantzukizun politikoak eta juridikoak non dauden argitze-ko garaia da», eta horregatik aurkeztu dute inpugnazioa. Foru Aldundiko teknikariak egingako txostenetik zenbait puntu nabarmendu zituzten

ezker abertzalekoek, beraien ustetan, «larrienak» zirenak.

ERABILERA INTENTSITATEA

Voith-Gorostidi eremuko arau berritatzaileren aldaketa proposamena 2006an gauzatu zen, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruaren Lege berria oraindik onartzeke zegoenean. Hala, «hau indarrean sartu eta gero onartu izan bali-txostena, proiektua ilegala izango zen, 77. artikulua urratuko bailuke», hori dio Aldundiko teknikariaren txostenak. Hau da, eraikigarritasun neurriak gaitzituak lituzte. Honen arabera 2,3 m² (t)/m² da gehi-enezkoa, eta Tolosakoak 3,6 (t)/m²ko proposatzen ditu, «gaur egungo erabilera intentsitateko neurriak ez beteaz». Honenbestez, arazo honen berri ohartarazten du Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak egingako agiriak. Jokin Azkue-aren esanetan berriz, «gaur egungo Lurzoruaren Legeak aurreikusten du, Euskal Autonomi Erkidegoak, orohar lur-zoru zelai gutxi duenez, ahalik eta eraikigarritasun handiena ematea. Hala, Voith-Gorostidi eremuko dentsitatea garrantzitsu da, baina premiak ere nabarmenak dira eta legearen baitan egin da. Dena den, zalantzarik gabe, inguruarekiko

oreka mantenduko da». Gainera, berariake sustatzen dutena da, udalerrian, hainbat pisutako etxeak egitea eta ez txaletak egitea. Zinegotziak gaineratu zuen, «are gehiago Gobernuaren perfila da bi logelako etxebizitza gehiago egitea, hirukoak baino, eta guk alderantziz egin dugu».

DOTAZIO PUBLIKOAK ETA EKIPAMENDUA

EAE-ANVko hautetsiek egingako aurreikuspenen arabera, «urte gutxian, 3.000 pertsona inguru biziko dira Voith-Gorostidiko eremuetan». Honenbestez, «biztanlego hazkunde horren arabera ekipamendu gehikuntza» eman behar dela uste dute ezker abertzalekoek, «eta ez lehendik daudenak erabili zenbakiek emateko, esaterako, Arkautekoa». Dotazio publikoak dira: kultur etxeak, kirol instalazioak, eskolak... «Bere garaian ekipamenduen inguruko eztabaida izan» zela azaldu zuen Jokin Azkuek, baina kasu horretan, hezkuntza arloari dagokionean esaterako, Santa Luziako eremua indartzea erabaki zutela aipatu zuen. Bestalde, auzo horretan, Arkauteko txaleta kultur gune bezala aurreikusten dutela gaineratu zuen. Hau aisialdirako erabiliko da. Bestalde babes ofizialeko etxebizitzaren azpialdean solairu bat ekipamenduetarako erabiliko dela agertu zuen. Gainera, Tolosa osotasunean ikusi behar dela uste du zinegotziak, eta hiri guztia kontuan hartuta «nahikoa ekipamendu badaudela» uste du.

FINANTZIAZIO EKONOMIKOEN AZTERKETA

Aipatu txosten teknikoak dioten arabera, 34 milioi euro bideratu dira eremuko industriak tokiz aldatzeko. Honek urbanizazio gastuen %30a suposatuko luke. Gainera, gastu honetatik kanpo geratzen da lurraren ordainketa. Hori dela eta, txostenak eskatzen duena da gastu hori justifikatzea. ANVren esanetan diru kopuru hau gehiegizkoa da, «berez, ez da horrenbeste behar». Azkue zinegotziak, honen aurrean azaldu du, «aldaketa partziala egiten denean ezinbestekoa da memoria ekonomikoa egitea, eta bertan jasotzen dira zifrak. Zifra xeheak eta zehaztuak, horregatik, datu guztiak ikusi beharra dagoena da, zer suposatzen duen Voith-Gorostidi etxebizitzaren eremuko enpresak Apatia-Errekara eramatea. Honekin, azpiegiturak hobetu dira, eta lekuak egokitu, honek inbertsio eta koste handia suposatzen duenlarik».

TOLOSA ▶ NEKAZARITZA

EHNEren V. kongresua martxan da

2008ko kongresua dela-eta batzarra antolatu dute Tolosan bihar

HARRIET BELLOSO

2008. urte hasieran EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) sindikatuaren V. Kongresua ospatuko dute, eta horregatik bihar batzar bat antolatu dute sindikatukoek. Tolosako Musika Eskolan izango da 11:30ean eta bertan ballara desberdinetako baserritarrez osaturiko batzordea aurkeztuko dute. Batzorde honetan «indar guztiak» jarriko dituztela adierazi dute; «sektorea berregituratzeko baserritarrendandik egin beharreko lanak eztabaidatu, jaso eta lehentasunak adosteko garaia» dela diote sindikatutik. «Hoberena» ahalik eta jende gehien azaltzea dela diote eta hauen «partehartzea» kontuan hartuko dute.

SEKTOREA

Egoera txarra aztertuko dute, ogibidea «arriskuan» ikusten dute; «duela lau urte baino okerrago gaude»

Sektorearen egoera txarrari buruz ere hitz egingo dute. Baserritarrak ez daude oso lasai beraien ogibidea arriskuan ikusten baitute: «Duela lau urteko kongresuan egoera kezagarria bazen, oraingoa askoz okerragoa da». EHNE sindikatukoek «politikoki gauzak gaizki egin direla» uste dute eta «horri esker gaur egun oso jende gazte gutxi dagoela nekazaritzan lan egiten» esan



EHNE sindikatukoak atzo emandako prentsaurrekoan. HARRIET BELLOSO

dute. «Gaur egun adineko jende gehiegi dago lanean eta 40-50 urteko nekazariak oso kezkatuta daude nekazaritzaren oraingo egoerarekin», adierazi zuten EHNEkoek atzo eginiko agerraldian.

Jakitera eman dutenez, «ekonomikoki ere gauzak ez doaz batere ondo». Lan egiteko erabiltzen diren tresnen prezioak izugarriko igoera jasan dute eta «honek lanerako baldintzetan eragin handia izan du». Baserritarrak beraien salneurriak mantentzea «behartuak» ikusi direla diote eta «zenbait produktu merkeago saldu behar izan dituzte».

«Ilusioz eta gogo handiz»

«Hausnarketa sakon batetik», nekazal politika zein honen egikaritzea ahalbideratuko duten baliabideei buruzko eztabaida ireki nahi da. Besteak beste baserritarren batasuna, gizartearekiko eta gizarteak baserritarrendanako konpromisoa eta gizartearekiko elkarrekintza ezinbesteko premisak izango dira. «Ilusioz eta gogo biziz» ekingo diote lanari, etorkizuna baserritarren esku baitago. Sektorea eta baita herri txikien izaera mantendu eta duintasunez aurrera egiteko gutziz ezinbestekoak dira ere.

UGANE ▶

Auzoko jaia gaur ospatuko dute, poteo eta guzti

ERREDAKZIOA

Gaur Tolosako Ugane auzoan jaia egingo dute egunean zehar. 11:30ean IX. Txirringulari igoera egingo dute. Ikaztegiatiko errepidetik abiatuta. Ondoren, desafioa izango da Garmendia eta Insaustiren artean. Batak korrika egingo du igoera eta besteak, berriz, bizikletan.

Ondoren, 12:30ean Ikaztegiatiko dantzariak egongo dira dantzatzen eta gero poteo garaia izango da Hernaniko bertsoariekin. Bazkaria egingo dute ondoren, plazan.

18:00etarako, berriz, ume jolasak antolatu dituzte aukideek. «Txokolata ere prestatuko dugu bertaraten direnentzat», diote bertakoe. Ezin da ahaztu, egunean zehar Gari Larrañaga egongo dela trikitiarekin. Eguraldi ona iragarri dute; beraz, ez da aitzakiarik behar bertara hurbiltzeko.

IBARRA ▶

Josetxori omenaldia etzi 19:30ean

Josetxo Goikoetxea ibartarra hil zela 26 urte beteko dira bihar. Herritarrek omenaldia egingo diote etzi, astelehenean, 19:30etik aurrera Ibarra-ko hilerrian. Bertara agertze-ko deialdia zabaldu dute.

LEITZA ▶

Jon Jaunarena, Nafarroako pilotan txapeldu

Jon Jaunarena leitzarrak Nafarroako Eskuz Banakako Txapelketa irabazi zuen, kadete mailan joan den asteazkenean. Norghegiakoa Labriten jokatu zuen leitzarrak, Tainta pilotariaren aurka. Jaunarenak 10 tanto atera zizkion aurkariari (18-8). Honekin eskuratzen duen 30. txapela da. «Ez nintzen oso ongi aritu, baina ongi amaitu nuen», dio Jaunarenak. Orain DV Torneoan buru-belarri dabil eta hurrengo partida hilaren 27an jokatu du.

x. azoka

Zizurkil Goia **urriak 21**
igandea

berezia

11:00-14:30 - 16:00-19:30

Baserriko produktua eta artisauak

Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan edo Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko plazara egun guztian zehar.

11:00: Kantu jira. Azoka euskal kantuz alaituko dute.

12:00: Haurrentzat jolasak Udaletxe aurrealdean.

13:00: "Zizurkilgo Azoka Bereziko Saria" Zizurkilgo janari postu hoberenari eta "Zizurkilgo Barrena Bekako" bekadunaren izendapena.

14:00: Txahal erre jatea Zimiterioan. Txartelak salgai Zentroa, Pantxikane eta Atxulondo tabernetan. Prezioa: 10 euro.

17:00: Haurrentzat poniak.

17:30: Valporqueroko Arranoak. Txori eta harrapakinen erakusketa.

19:00: Txori eta harrapakinen hegaldi erakusketa zaldi gainean.

Pintxoak-ortatekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak
Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabal Kirolegia
Tolosa Tel.: 943 577573
www.bidebide.es

bidebide
restaurant&bar

G

Urriak 20 AZKULTIA
Urriak 21 IKEN

www.gauritua.com

hitza

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ▶

Txapelketaren final-laurdenak gaur hasiko dira eta hauetan Tolosaldeko bi bertsolari daude; alde batetik Larraulgo Jexux Mari Irazu eta bestetik, Berrobin jaiotako Unai Muñoa. Gaur Irazu Azkoitian ariko da Baztartxo antzokian; bihar, berriz, Muñoa izango da Irungo Amaia antzokian NEREA URBIZU

JEXUX MARI IRAZU ▶ BERTSOLARIA

«Gaur plaza-kutsuarekin botako ditut bertsoak»

Finalerdian eskualdeko bertsolariak izango direla uste du

Zakur zaharra dela dio Jexux Mari Irazu bertsolariak (Larraul, 1973), Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan final-laurdenetan egona baita lehendik ere. 19 urterekin hasi zen bertsoetan eta gaur arte gelditu gabe ari da. Gaur egingo du aurtengo lehen saioa txapelketan, Azkoitiko Baztartxo antzokian, 18:00etatik aurrera, eta «motibatuta» dagoela esan du larrauldarrek.

Kanporaketaren batean egon zara?

Batzuetan bai, eta maila ona dago. Orokorrean bost laurdenetan maila ona dagoela iruditzen zait: Iñaki Gurrutxaga

dago nire kanporaketan. Xabier Sukia ere bai...

Zer espero duzu Azkoitian?

Saio polita aterako da, baina beste lau kanporaketetan bezala. Eskarmentuko jendea dago laurdenetan. Azken batean, helburuetako bat hori da, polita egitea, eta aukerak badaude horretarako, koadrila polita gaude. Azkoitian ikusle en aldetik ere jende asko espero dut, eta giro ona. Aurreko kanporaketetan ere hala erantzun du jendeak: jendea kanpoan gelditu behar izan da askotan, ezin barrura sartu saioa ikustera. Gipuzkoako Txapelketak berezko indarra dauka.

Final-laurdenetan eskualdeko bost zaudete.

Eta aurrekoan bi iritsi ginen finalerdietara: Mendiluze eta ni neu. Hori berdintzera, gutxienez, joan beharko gara. Aukerak, behintzat, badaude. Denak ere zakur zaharrak gara, besteetan aritutakoak.

Zer nahiago duzu, hasieratik parte hartu, ala laurdenetan zuzenean egon?

Aukeran, hasieratik hasita ohi-tura hori hartzeko badirudi ona dela, baina egia da ere, faktore asko hartu behar direla kontuan: zortea, eguna, gaia... Lehenengo fasean aurren 72 bertsolari zeuden, eta



IMANOL GARCIA

hori asko da. Egia esan, nahia-go dut final-laurdenetan zuzenean egon. 72 bertsolaritik 23 igaro dira final-laurdenetara, eta hori bada alde. Borroka handia egon da, eta igaro beharreko filtroa estua izan da.

Nola ikusten duzu zeure burua gaurko?

Ahal dudana egingo dut: saio

ona egiten duena da azkenean finalerdietara pasatzen dena. Ahal izatea eta egitea, hala ere, ez da berdina. Ahal den lasaien egongo naiz eta plaza-kutsuarekin botako ditut bertsoak. Mementuz lasai nago, motibatuta eta gogotsu. Gero, mementuan ezin da jakin, baina nerbioek traiziona dezakete... ◀

UNAI MUÑOA ▶ BERTSOLARIA

«Biharko saioan pentsatu eta nigan zerbait aldatzen da»

Urduri dago biharko saiorako baina egindakoarekin pozik

Lehen bertsoak Berrobin bota zituen Unai Muñoak (Berrobi, 1982); aita ere horretan aritzen zen, eta 5 urterekin edo, aitak egindakoa egin nahian botako zituen. Aspaldi Lasarten bizi da, eta bertan egiten du ere bizia. Duela lau urte bezala, lehenengo fasea gainditu du aurren ere Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan.

Kanporaketaren bat ikusteko aukera izan duzu?

Bai, Arrasaten egon nintzen. Orokorrean, maila aldetik, denetik ikusi dut, baina asko maila oso onean: forman daude eta errespetua emateko modukoak dira.

Bihar Irungo Amaia antzokian 17:00etan duzu final-laurdenetako kanporaketa. Bertan ariko direnak ezagutzen dituzu.

Ezagutu bakarrik ez, harreman estua dago ere. Horregatik bakarrik berezia izango da: babe-

sa eta konfidantza ematen du horrek: honela oholta ez da horren arrotza, eta lana errazten du.

Nola ikusten duzu zeure burua?

Neure burua aukera guztietan ikusten dut. Animoz, gogoz nago eta present daukat buruan finalerdietara pasatzea, honela Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko aukerak izanik. Baina hau, helburu baino gehiago, gogoia da, desioa.

Final-laurdenetan Tolosaldeko 5 zaudete.

Eta batzuk gainera maila handikoak. Tolosaldean bertso-gintza indartsu dago, bai kantitatez eta baita kalitatez ere. Harrobia ere indartsu dator, bai Tolosaldean eta baita Gipuzkoan ere. Fenomeno hau orokorra da.

Zer gai nahi zenuke egokitzea?

Nik nahiago dut neure papere-

an kantatzeko aukera ematea. Adibidez, kezak, edo gizartearen ingurukoak... Hori nahia-go dut, ofizioka aritzea baino.

Zer moduz zaudete biharko?

Urduri xamar nago. Txapelketa hau bereziki bizi dut; besteetan ez dut horrenbesteko tentsiorik sentitzen. Honetarako aurretiko jarrera diferentia daukat: saioan pentsatu eta nigan zerbait aldatzen da. Azken batean txapelketa da eta horretan nago. Baina pozik nago: final-laurdenetara iritsi ez diren on asko kanpoan gelditu dira. Behar zen har hori sentitu dut lehenengo fasean. ◀



BERTSOZALEEN ELKARTEA

ASTEASUKO LANTEGI BATEAN TORNEROA BEHAR DA.
DEITU: 652 72 41 69

ARAMBURU
Salgai (Tolosa).
Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Ibarra).
Garajeak Euskal Herria kalean, irekiak.
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian.
Salgai (Ibarra). Lokala Euskal Herria kalean.
Salgai (Tolosa).
Garaje itxia San Frantzisko kalean.
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiarrekin, zentron.
Alokatzeko (Tolosa).
Pisua, Nafarroa etorbidean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea irekiak, Araba etorbidean eta Igarondo kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garaje itxia, San Frantzisko eta lurren.
Alokatzeko (Leaburuko bidean).
Pabiloi industriala.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Beti Unai jatetxea
Garaian garaiko janariak
Arraikiatan berezia
© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

POLITIKA ▶

Azken atxilotuak askatzea «exijitu» dute EALeko kideek

Algorta eta Berangon egindako atxiloketetan taldeko bi kide aurkitzen direla azaldu dute Eneko Aritzaren Lagunek



Eneko Aritzaren Lagunak Gorritin elkartu ziren, pasa den martxoan, segada eszena grabatzeko. HITZA

ERREDAKZIOA

Eneko Aritzaren Lagunak zinemagintza eta kultur elkarteak (EAL) asteartean Algorta (Bizkaia) eta Berangon (Bizkaia) eginiko atxiloketetan, taldeko bi kide atxilotu zituztela azaldu zuen herenegun emaniko prentsurrekoan. Bertan, taldeko kideek «atxilotu guztiak aske uztea exijitu» zuten.

Ibarrako Kultur Etxean elkartu ziren EALko kideak, *Inkisziorik ez, Algorta eta Berangoko lagunak askatu!* jartzen zuen idatzitako inguruan. Prentsurrekoan, Pierre de Lancre inkisidorea, «Garzon inkisidorearekin» alderatu zuten. Atxiloketak, «sorgin kondaira eta muntaietan oinarrituak» zeudela salatu zuten.

«1.609. urtean, Pierre de Lancre inkisidore frantsesa, parlamentuak izendatuta Lapurdira iritsi zen. Bertan, historialariek ero baten azio gisa hartu duten ekintzan, 2.000 bat euskaldun auziperatu zituen, eta 600 bat erre. Inkisidoreak tortura, mehatxua eta beldurra erabiltzen zuen bere nahiak lortzeko. Ia 400 urte ondoren, historia errepikatu da. Garzon inkisidorea, berriz ere Euskal Herrira etorri da. Lankre berak ere gorraipatuko luken lana eginaz, herritarrei beldurra sartu die berak sorturiko Sorginen kondaira eta muntaien bidez».

Taldeko bi kide eta beste atxilotuak (inkomunikaturik eta bahiturik) aurkitzen direla salatu zuten. «Garzon inkisidoreak bahiturik ditu atxilotuak,

torturatu ahal dituzte, Lancren moduan inkisidoreak berak entzun nahi duena sinatu arte, besterik ez baitute nahi: Euskal Herriko gazte dinamikoak, kultur gintza herrikoian lanean jotafuego dabilzanak anulatu, bahitu, torturatu eta desegin. Eneko Aritzaren Lagunak zinemagintza eta kultur elkarteak Garzon inkisidoreari sei bahituak aska ditzatela exijitzen diegu».

«Algorta eta Berangoko herritarrekin bat egiteaz gain, mobilizazioetan parte hartzeko deialdia» zabaldu zuten EALko kideek; «Euskal Herritarroi dei egiten diegu, duela 400 urte gertatu zenetik ikasi eta inkisidoreen lanak gure borrokarekin gera ditzagun. Beraz, adi mobilizazioei».

LEABURU-TXARAMA ▶ POLITIKA

182.2 artikulua eskatu dute ANV-EAeko kideek

Bide Berriak Hautesle Elkarteko kideak «gezurretan ibili direla» salatu dute



Leaburu-Txaramako ANV-EAeko kideak prentsurrekoan. E.EZEIZA

ESTI EZEIZA

Leaburu-Txaramako ANV-EAeko kideek prentsurreko eskaini zuten herriko Gazte lokalean. Bertan, Bide Berriak-en jarrera salatu zuten, hauek «inongo aurrera pausorik ematen ez dutela» adieraziz. Bestalde, «herrian gauza bat esan eta Diputazioan aurkakoa esaten dutela» azaldu zuten.

Maiatzeko hauteskundeetatik gaur arte emandako prozesua azaldu zuen Amalia Aduariaga, EAEn zerrendaburuak. «Ekainaren 16a baino

lehen, hau da, kargu hartze egunaren aurretik, lau bilera egin genituen Bide Berriak-ekoekin, denak ere guk deituta. Batzar hauek ez genuen irtenbiderik aurkitu. Diputazioa ere joan ginen elkarrekin, gestora bat osatzea erabaki baitzen udalbatzarrean. Bide Berriak-eko kideek, behin bertara joan ginenean, dena ukatu egin zuten, irtenbideari atxak itxiaz».

Gaur egun «harremanak hautsita aurkitzen dira» azaldu zuten EAeko kideek. Horren aurrean, «182.2 artikulua aplikatzea» eskatu zuten.

IBARRA ▶

Ibarra FSren partida gaur 18:30ean etxean

Belabieta kiroldegian jokatuko du gaur 18:30ean Ibarra areto futbol taldeak, Irurtzungo (Nafarroa) Xota taldearen aurka, Ligako seigarren jardunaldiaren barnean.

IBARRA ▶

Nafarroa Oinezera joateko autobusa

Ibarrako Gaztetxeak bihar Vianan (Nafarroa) ospatuko den Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatuko du. Autobusa Kultur Etxe aurretik irtengo da 08:30ean.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ARESO ▶ GIZARTEA

Onddoen inguruko erakusketa egin dute

Eskolako ikasleek goizean ogia egin zuten, baita onddo-tortilla ere, denen artean jateko



Onddoen inguruko hainbat azalpen eman zituzten. N. GARZIA



46 espezie inguru bildu dituzte Aresoko eskolako ikasleek. N. GARZIA

N. GARZIA

Atzo Aresoko eskolan onddoen erakusketa egin zuten. Oro-tara 46 onddo klase ezberdin ikusteko aukera izan zuten hurbildu ziren gurasoek.

Asteartean inguruko mendietara ateraldia egin zuten. «Txikienek gaztainak bildu zituzten, eta zaharragoak dire-

nek, onddoak», diote Mikel Illarregi eta Lierni Sagastibel-tza irakasleek. Erakusketa honen barruan beste 2 ekitaldi ere antolatu zituzten, honela, 09:00etan ogia egin zuten, Mikel Illarregik esan zuen bezala «Aresoko hirinarekin», eta erakusketaren ondoren, ber-raiek egindako onddo-tortilla dastatzeko aukera izan zuten.

Udaberriko zizazuria, onddobeltza (azken hau, Illarregi- gik adierazi zuen bezala, sukaldaritzan oso gutziziatua)... bildutako onddo guztiak sailkatu zituzten, eta ikasleek zein irakasleek zenbait azalpen eman zituzten eta ikasle batek hitz hauekin amaitu zuen bere aurkezpena: «onddo guztiak dira jateko baina batzuk behin bakarrik».

LEITZA ▶ ETXEBIZITZAK



Azaroaren 20ra arte egin ahalko da galdeketa udaletxean bertan, 012ra deitu eta ordua hartuta. N. GARZIA

Etxebizitza beharrak zehazteko azterketa abiarazi du Udalak

Xabier Zabalo Leitzako alkateak azaldu duenez, «helburua Leitzan bizi nahi duten guztiek zer behar dituzten jakitea da»

NAIARA GARZIA

Leitzako Udalak herenegun abian jarri zuen etxebizitza beharrak zehazteko azterketa. Azterketan parte hartzeko 012 zenbakira deitu behar da, eta etxebizitzaren inguruko galdeketa egin nahi dela esan. Ondoren hitzordua emanen zaie deitu dutenei, udaletxeko areto batean soziologoarekin bildu daitezten.

Xabier Zabalo Leitzako alkateak azterketa honen helburua azaldu du. «Helburua Leitzan bizi nahi duten guztiek zer behar dituzten jakitea da. Gure ustez beharrak oso ezberdinak dira, bizi proiektuak ezberdinak izan daitezkeelako, zaila da estandar batean denak sartzea. Guk jakin nahi duguna da

ze behar dauden, herritarrek ze diru aukera dauzkaten... Gero azterketak bide bat emanen digu etxebizitzaren gaia lan-tzen jarraitzeko».

Udalak emandako datuen arabera, ostegun goizean 4 pertsonak egin zuten galdeketa, ostiral goizean bik eta gaur beste lauzpabost bilduko dira soziologoarekin. «Larunbaterako 10-12 pertsona pasatu izan dira», dio Zabalak. Jendearen parte-hartzea ezinbestekoa da herriaren eta herritarren egoera (eta beraz, etorkizuna) zehazteko. «Behin horrelako azterketa bat egiteko erabakia hartzen dela, pena litzateke gero herritarrek behar bezala ez erantzutea».

Galdetegia egiteko epea azaroaren 10ean bukatzen da, 3

aste barru. «Jendeak azkeneko unerako ez uztea nahiko genuke», dio Zabalak. Behin galdeketa amaituta, soziologoak txostena egingen du, «behar duen denbora hartuko du horretarako» eta emaitzak jendaurrean aurkeztuko dituzte. ✎

Leitzar ororentzat

Xabier Zabalak 16 urtetik gorakoentzat dela azpimarratu du. «Inketa ezberdinak daude, egoera ezberdinentzat eta bai 16 urtetik gorakoentzat, bai Leitzan bizi nahi dutenentzat. Honek esan nahi duena zera da, inguruan edo beste herri- ren batean bizi den leitzar batek herrira itzuli nahiko balu, hori ere jakin nahiko genukeela».

iragarki laburrak ▶

LANA

Monitorea. Amezketan, aerobika edo gimnasia erakusteko monitorea behar da, astean bi orduz lan egiteko. 627 78 91 82.

Hezitzaileak. Tolosako haur- eskola batek lan-poltsa eratzeko hezitzaileak behar ditu. 943 67 36 98.

Biltegiarako mutila. Biltegiarako mutila behar da gida baimenarekin, astelehenerdik ostiralera lan egiteko. Interesatuak deitu astelehenerdik ostiralera. 648 004798.

SALGAI

Trikitixa. Egoera onean dagoen trikitixa salgai. 669 67 36 49.

Autoa. Egoera paregabean dagoen Peugeot 206 GTI-a, 16 balbulatoka, 4 urte. 656 41 02 80.

BERRIAREN edizio digitalean diseinatzaile/programatzaile lanpostua betetzeko pertsona bat behar da.

Erreferentzia: 200710 EH-DP

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- Sei hilabeteko kontratua (luza daiteke).
- Lanean berehala hasia (azaroan).

Bidalji curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, urriaren 26a baino lehen.

BANAKETA ENPRESA batek banatzaileak behar ditu Donostian, Urolan eta Tolosan.

Lan baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Deitu lehenbailehen telefono honetara: 943-30 43 41. Edo bidali zure datuak helbide elektronikora honetara: lanpoltsa@etxeraino.net.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. Lehen laguntzak mendian ikastaroa Anoetako udaletxean hilaren 26an 19:00etan doan eta euskaraz. Izen-ematea, udaletxean. halaber, Mendi Astearren barruan, hilaren 28rako Adarrara irteera antolatu dute Anoetan. Plazatik 09:00etan aterata, hiru orduko ibilaldia da. Lehen laguntzen praktikak egingo ditu ibilaldian. Ondoren, Hernaniko Santa Barbarara eskalatzera irteera antolatu dute, doan, 10 urtetik aurrera. Hilaren 27an, larunbatean, Anoetako plazatik 16:00etan abiatuta. Izen-ematea, kiroldegian.

Asteasu. Iturri Ondo jatebexan 22:30ean O'liden's banda taldearen kontzertua. **Berastegi.** Pirritx eta Porrotx pailazoan *Mari Motots* ikuskizuna frontoian 17:00etan.

Berastegi. Gaztainondo jubilatuen elkartetik, Garesera ibilaldia antolatu dute urriaren 26erako: Eunateko baseliza, bazkaria Jauke jatebexan, La Morea komertzialgunea... Izen-ematea, elkartean 30eurotan bazkideek (33 bestek).

Hernalde. VII. Rolleski Igoera Hernaldera urriaren 27an, era librean Belate edo klasikoan Bentatik. Izen-ematea, 685 776 504 telefono zenbakian (arratsalde) edo *alpinouzturre@begira.com*.

Izaskun. Unai Otaño aizkolariari omenaldia egingo dio Udalak Euskadiko Txapelketan bigarren izateagatik, Izaskunen 18:30ean bertsolari, aizkolari eta dantzariekin. **Ikaztegieta.** Petra



Liburutegiaren Egunaren harira, ekitaldi ugari

TOLOSA ▶ Hil honen 24an, asteazkenarekin, Liburutegiaren Eguna ospatzeko, Haur Liburutegiak hilaren 22tik 26ra Eusko Jaurlaritzak antolatutako *Irakurri kanpaina 2007an* parte hartuko du honako jarduerak burutuz: *Liburu bat, adiskide bat* eta *Liburua duen erretratua*. Astelehenean 18:00etan, 4-8 urte bitarteko umeentzat liburutegiari buruzko ipuinak kontatuko ditu Idoia Sanchezek —irudian—. Halaber, asteazkenean bertan, liburutegiko kamiseten zokzeta egingo dute liburuak maileguan eramaten dituzten erabiltzaileen artean eta liburutegia zoriontzera

etortzen direnei gozokiak banatuko dizkiete. Pankarta txuri batean haurrei aukera emango diete liburutegia zoriontzeko eta trukean gozokiak jasoko dituzte. Hauekin batera, beste hainbat ekitaldi ere egingo ditute aste osoan, besteak beste, Liburutegiko txartela ateratzeko lagun bat ekartzeko duen bazkideak opari bat jasoko du. Bazkide berriak ere bai noski. Liburutegitik jakinarazi dutenez ipuinen eta eleberrien irakurketa gida prestatu dute, liburutegia gai hartuta eta EAEko DBHko ikastetxeetako ikasleen artean argazki lehiaketa egingo dute. ESTI EZEIZA

Belamendiarekin ikasi duten ikasleen bazkaria hilaren 27an, Kafe Frontonen. Izen-ematea, astelehena baino lehen. (630 716157). **Tolosa.** Benito Lertxundi eta bere taldearen kontzertua Leidor aretoan 20:00etan, Udaberri taldearen 50. urteurrenaren harira antolatua, Udalarekin elkarlanean. **Tolosa.** Bonbereneako 6. Skate Txapelketa eta Graffiti erakustaldia. Gauean, HR eta Stepy Selekta-ren kontzertua. **Tolosa.** Tolosako Musika Bandak kontzertua eskainiko

du Zerkausion 19:00etan: Arriagaren *Los esclavos felices, Cabaret*, Brahmsen *Danza hungara n° 6...* Zuzendaria: Enrike Arostegi. **Tolosa.** San Esteban auzoko XX. Kultur Astea: albokorraren bila eta mus txapelketa 16:00etan; haur jolasak 16:30etan; buruhandiak 18:00etan; txokolate jatea 19:00etan Bonberenea txarangarekin eta Makala banda+Boom Shakalaka Sound System 24:00etan. **Tolosa.** Indiako Gomukh GKEren aldeko gala benefikoa hilaren 26an Fronton jatebexan. Afari berezia izango da 60 eurotan. Izen-ematea, 943 652941 telefono zenbakian. **Tolosa.** Bihar Vianara, Nafarroa Oinez festara, joateko autobusa antolatu du Galtzaundi euskara taldeak. Izen-ematea, elkartean bertan egin daiteke (Nafarroa etorbidea 6, behe). **Tolosa.** Ondo pasa eta euskal dantzak ikasteko (fandangoa, arin-arina, Larrain dantza, Bedaioko Inguruxoa, muxikoak) ikastaroa antolatu dute Amaratzen ostegunetan 20:30ean auzoko lokaletan.

Dozeinentzat irekia. **Tolosa.** Adinekoei laguntzeko boluntariora ikastaroa azaroaren 12tik 16ra Gizarte zentruan, 17:00etatik 20:00etara Izarne Lizaso psikologoarekin. Izen-ematea, 663 05 72 23ra. **Ugane.** Tolosako Ugane auzoan, 11:30ean IX. txirindularitza igogera izango da, ondoren desafioa Garmendia eta Insaustirekin. 12:30ean Ikaztegieta dantzariak eta bertsolariak. 14:00etan bazkaria. 18:00etan ume jolasak izango dira. **Villabona.** *Hitza eta erabakia askatasunez* lelopean bertso saioa izango da Olaederra kiroldegian 22:30ean Egaña, Agirre, Silveira, Paia, Uranga eta Lagomarekin. **Villabona.** Elkar alkoholiko anonimoen elkarteak 21 urte bete ditu Villabonan. Urtemuga ospatzeko, bilera irekia egingo dute 18:00etan HHI zentroan (udaletxe aurrean) eta gauean afaria egingo dute.

ZINEMA
Tolosa. *Doraemon eta dinosaurio txikia* filma emango dute Leidor aretoan 17:00etan. **Tolosa.** *Caotica Ana* filma emango dute Leidor aretoan asteburuan: gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30etik aurrera eta etzi 20:30etik aurrera (Ikuslearen eguna).

GUARDIAKO FARMAZIAK
Gaur
Tolosa. Ollareaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 675118.
Leitza. Campos, M. Elbarren, 52. 112.
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

URTE ASKOAN
 Zorionak Pitxurri.
 Asko maite zaitgunon partetik.

Kimetz
 denda berria

♂ **Mutil arropa**
 Kale Nagusia 13
 943 24 94 96

♀ **Neska arropa**
 Kale Nagusia 21
 943 67 38 62

2 lenteetan
 x zure betaurreko berriak
 1 erosten

villabona
 optika

Kale Berria 23A • 20150 Villabona • Tel.: 943 11 18 40